



Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programaren diru laguntzen 2019. urteko deialdia.

1. Helburua.

Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programaren dirulaguntzen 2019ko deialdia egitea. Oinarriak Diputatuen Kontseiluak 2017ko ekainaren 27an onartu zituen (2017ko uztailaren 4ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 127 zk.) eta Diputatuen Kontsei luaren erabaki bidez aldatu zituen 2018ko apirilaren 10ean (2018ko apirilaren 18ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 74 zk.).

2. Eskakerak aurkeztea.

Eskakerak aurkezteko epea deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta bukatuko da:

— III. (enpresak sortzeko prozesuan emakumeek sustatutako enpresa proiektuei laguntza emateko dirulaguntzak) eta V. eranskinen (ekintzaileen eta ekintzailetzaren inguruko trebakuntza, ebaluazioa, balorizazioa eta zabalkunde soziala helburu dituzten jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak) 2. Oinarrian aurreikusitako jardueren kasuan, 2019ko apirilaren 29an, eguerdiko 12:00etan.

— II. (Enpresak sortzeko prozesuan enpresa proiektuei laguntza emateko dirulaguntzak) eta IV. (oinarri teknologikoko enpresak edo enpresa berritzaileak sortzeko prozesuan laguntza emateko dirulaguntzak) eranskinen 2. oinarrian aurreikusitako jardueren kasuan, 2019ko urriaren 17an, eguerdiko 12:00etan.

3. Finantziazioa.

3.1. Deialdi honetan eman beharreko dirulaguntzen zenbatekoa 1.661.715,00 eurokoa izango da, eta 2019rako Gipuzkoako Lurralde Historikoak dauzkan aurrekontu-sail hauen artean banatuko da:

a) Enpresak sortzeko prozesuan enpresa proiektuei laguntza ematea (II. eranskina):

1.0410.100.470.00.24.2019: 180.000,00.
5.0410.100.470.00.24.2020: 50.000,00 €.

b) Enpresak sortzeko prozesuan emakumeek sustatutako enpresa proiektuei laguntza ematea (III. eranskina):

1.0410.100.470.00.26.2019: 110.000,00 €.
5.0410.100.470.00.26.2020: 160.000,00 €.

c) Oinarri teknologikoko enpresak edo enpresa berritzaileak sortzeko prozesuan laguntza ematea (IV. eranskina):

1.0410.100.470.00.25.2019: 221.281,00 €.
1.0410.100.770.00.07.2019: 246.965,00 €.
5.0410.100.470.00.25.2020: 201.281,00 €.
5.0410.100.770.00.07.2020: 301.921,00 €.

d) Ekintzaileen eta ekintzailetzaren inguruko trebakuntza, ebaluazioa, balorizazioa eta zabalkunde soziala laguntzeko jarduerak (V. eranskina):

1.0410.100.470.00.19.2019: 50.267,00 €.
1.0410.100.481.00.15.2019: 40.000,00 €.
5.0410.100.470.00.19.2020: 60.000,00 €.
5.0410.100.481.00.15.2020: 40.000,00 €.

3.2. Aipatutako zenbateko osoa organo eskudunak handitu ahalko du, dirua ematea erabaki aurretik deialdi berririk egiteko beharrik gabe eta, kasuen arabera, dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ostean.

3.3. Era berean, Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuko foru diputatuari argi eta garbi ematen zaio eskumena programa honen aurrekontu-kredituetan zenbateko soberakinak geratuz gero baimendutako gastuak murriztea baimendu dezan, zenbatekoak departamentuaren programa honetako edo beste orotako aurrekontu sailletara transferitzeko.

4. Jarduerak gauzatzeko epea.



Oro har, diruz lagundutako jarduerak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko dira eta ondorengo datarako amaitu:

- II. eta III. eranskinen 2. oinarrian aurreikusitako jardueren kasuan, 2020ko apirilaren 23an.
- IV. eranskinaren 2. oinarrian aurreikusitako jardueren kasuan, 2020ko irailaren 30ean.
- V. eranskinaren 2. oinarrian aurreikusitako jardueren kasuan, 2020ko apirilaren 30ean.

5. Ebazpena jakinaraztea.

Dirulaguntza ematea edo ukatzea erabakitzen duen ebazpena eskatzaile bakoitzari bakarka jakinaraziko zaio, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea alde batera utzita, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 17. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

6. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskaeran, eranskinen dagoen ereduari jarraituz egindakoan, honako informazio hau sartuko da:

- a) Entitate eskatzailearen datuak.
- b) Dirulaguntzaren xede den proiektuaren edo jardueraren memoria deskriptiboa, balorazio irizpideak aplikatu daitezkeen (Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak eranskin bakoitzerako ezarritako ereduaren arabera).
- c) Aurkeztutako proiektuaren aurrekontu zehaztua.
- d) Ardurapeko adierazpena, deialdi honetako eranskinen erantsitako ereduaren arabera, eta eskaera telematikoa ere sartzen dena, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. Artikuluan ezarritakoari jarraituz, entitate onuradun izaera lortzeko debekurik ez duela adierazten duena, baita emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin eta Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartzasunerako Gutunaren 2007ko abenduaren 28ko 14/2007 Legearekin zerikusia dutenak. Eta, enpresak azken hiru ekitaldi fiskaletan jasotako «de minimis» laguntzei buruzkoa, horiek jaso baditu.
- e) Zerga betebeharraren eta Gizarte Segurantzakoetan egunean daudela egiaztatzen duen dokumentazio eguneratua. Dokumentazio horren ordez, Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuari baimena eman dakioke berariaz, berak zuzenean jaso ditzan datu horiek, horrelakoak emateko eskumena duten administrazioetatik.
- f) Lagun tza bateragarrien ziurtagiria.

7. Eskaerei buruzko erabakia hartzeko eta jakinarazteko epea.

Dirulaguntza onartzeko ala ezesteko erabakia jakinarazteko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdiaren argitalpen egunetik hasita, II. eta IV. eranskinetan aurreikusitako diru laguntzen epea 2019ko abenduaren 13an (hau barne) bukatuko da.

Erabakia eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio, eta, horrez gain, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 17. artikuluari jarraiki.

8. Borondatezko itzulketa.

Pertsona ala entitate onuradunak borondatezko itzulketa egin nahi badu, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako foru diputatuari 14.4 oinarri orokorrean zehazten den moduan. Idatzi horrekin batera, agiri bat aurkeztu behar du egiaztatzeko itzulketa ES73 2095 0611 09 1061070594 kontuan egin duela.

I. ERANSKINA

Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programaren» oinarri arautzaile orokorrak.

1. oinarria. Xedea.

Oinarri hauen xedea da «Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programa»ko diru laguntzen banaketa arautzea. Laguntzak ondoko jardueren alorretan emango dira eta horien oinarri bereziak eranskin gisa atxiki dira:



- a) II. eranskina: Enpresak sortzeko prozesuan enpresa proiektuei laguntza ematea.
- b) III. eranskina: Enpresak sortzeko prozesuan emakumeek sustatutako enpresa proiektuei laguntza ematea.
- c) IV. eranskina: Oinarri teknologikoko enpresak edo enpresa berritzaileak sortzeko prozesuan laguntza ematea.
- d) V. eranskina: Ekintzaileen eta ekintzaitzaren inguruko trebakuntza, ebaluazioa, balorizazioa eta zabalkunde soziala helburu dituzten jarduerak.

2. oinarria. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.

2.1. Eskaeran proiektu bakarra edo gehiago aurkez daitezke, eta horietako bakoitza II., III., IV. eta V. eranskinen 2. Oinarrian aurreikusitako diruz lagundu daitezkeen jardueretakoren bati buruzkoa izango da.

Enpresa interesatuaren ordezkari dela legezko edozein bidetatik kreditatzen duenak egingo du diru lagun tza eskaera.

2.2. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera inprimakiak eskugarri egongo dira Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuaren web orrian.

2.3. Eskaera orria eta dokumentazioa, nagusiki, Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuaren honako web orri honen bitartez aurkeztuko dira: <http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>.

2.4. Dena dela, eskaera orriak eta deialdian zehazten diren gainerako agiriak Gipuzkoako Foru Aldundiko erregistro elektronikoren bidez ere aurkeztu ahal izango dira (<https://www.gfaegoitza.eus>).

2.5. Eskaerak aurkezteko epea deialdian zehaztuko da.

2.6. Entitate eska tzaileek ez dute aurkeztu beharrik izango Gipuzkoako Foru Aldundiak jada bere eskuetan dituen agiriak, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua zehazten duenari jarraituz; horrela, bada, eskaera orrian adierazi behar da agiri horiek zein egun eta organoaren aurrean aurkeztu izan ziren edota, zein organok eman zituen, betiere agiri horiek aurkeztu zireneko prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira. Dokumentazioa lortzea ezinezkoa den kasuetan, organo eskudunak eskatu ahal izango dio enpresari, edo aurkez dezala, edo, ezin badu, beste nolabait egiazta ditzala dokumentuan egiaztatu beharreko eskakizunak.

2.7. Eskaera orriak, edo harekin batera aurkeztutako agiriak, identifikazio daturik jasoko ez balute, akatsen bat izango balute edo daturen bat faltako balute, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar eguneko epea emango litzaioke eskatzaileari hutsegite horiek konpontzeko, eta ohartaraziko litzaioke, horrela egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, aipatutako Legeak 21.1 artikuluan aurreikusitako eran. Era berean, departamentuak, eskaeren ebaluaziorako beharrezkoak ikusten dituen azalpen eta dokumentazio gehigarri eskatu ahal izango ditu.

Nolanahi ere, Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuak proiektuak ebaluatzeko eta erabakitzeko beharrezkotzat jotzen dituen argibideak eskatuko ditu.

2.8. Enpresa eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuak posta elektronikoren bidez diru laguntzaren eskaeran harremanetarako pertsona gisa identifikatutakoaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiak.

3. oinarria. Diru laguntza emateko prozedura.

3.1. II. eta IV. eranskinetan aurreikusitako jardueren kasuan, diru laguntzak emateko prozedura lehiakortasunik gabekoa izango da, aurrekontua agortu arte; III. eranskinetan, eta V. eranskinetan aurreikusitako jardueren kasuan, deialdi eta hautaketa prozesu bakarreko lehia izango da.

3.2. Lehiakortasunik gabeko prozeduraren kasuan, eskaerak ebazterakoan kontuan hartuko da eskaeren jasotze hurrenkera eta horren arabera banatuko dira funtsak, baldin eta deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte, deialdian xedatutako aurrekontua agortu arte. Eskaeraren jasotze data izango da deialdiaren baldintza guztiak betetzen dituztela eta espedientea osatuta dagoela egiaztatzen duten agiriak jasotzen direneko azken data.

3.3. Laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, deialdi publiko bidez. Deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.



4. oinarria. Finantzazioa.

4.1. Emango diren diru laguntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdian ezarriko da zein aurrekontu kredituren kargura finantza tuko diren diru laguntzak.

4.2. Diru laguntzen zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren guztizko kostua gainditzen duen kostu osoa baino handiagoa, ez bakarka ezta beste diru laguntzak, sarrerak edo baliabideak batuta ere.

5. oinarria. Portzentaiak eta diru laguntzen gehiengo zenbatekoak.

Erakunde eskatzaileak aurkeztutako aurrekontua edo ondorengo aldaketak, oinarri arau tzaile orokorreko eranskinetan jasotzen diren oinarri espezifikoetan ezarritako aurrekontu baliabideak eta balorazio eta kuantifikazio irizpideak, mugarriz izango dira diru laguntzaren zenbatekoa erabakitzeko.

6. oinarria. Prozedura ordenatu eta izapidetzeko organo eskuduna.

6.1. Prozedura izapidetuko duen organoa Jakintza eta Enpresa Jarduera Sustatzeko Zerbitzua izango da.

6.2. Diru laguntzak emateko prozedura lehiakortasunik gabekoa den kasuan, Jakintza eta Enpresa Jarduera Sustatzeko Zerbitzua aurkeztu diren eskaerak ebaluatuko ditu eta behin betiko ebazpen proposamena egingo du. Proposamen horrek ez du inolako eskubiderik sortuko bertan onuradun gisa azaltzen diren pertsonen edo enpresen alde. Zerbitzuak behin betiko ebazpen proposamena igorriko dio organo eskudunari.

6.3. Diru laguntzak emateko prozedura lehia bidezkoa den kasuan, aurkeztutako eskaerak aztertu eta baloratzeko, ondorengo kideek osatuko duten Balorazio Batzorde bat eratuko da:

- Ekonomia Sustapeneko zuzendari nagusia.
- Jakintza eta Enpresa Jarduera Sustatzeko Zerbitzuko burua.
- Jakintza eta Enpresa Jarduera Sustatzeko Zerbitzuko teknikari bat jarduera eremu bakoitzeko.
- Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko idazkari teknikoa.

6.4. Prozedura izapidetuko duen organoak bidezko irizten dituen aholkularitza eta txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu aurkeztutako eskaerak behar bezala baloratzeko.

7. oinarria. Eskaerak ebaztea.

7.1. Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko foru diputatuari edo Ekonomia Sustapeneko zuzendariari dagokio diru laguntza emateko edo, kasua balitz, ukatzeko ebazpena ematea, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuaren egitura organiko eta funtzionala arautzen duen Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik.

7.2. Diru laguntza ematea edo ukatzea erabakitzen duen ebazpena enpresa eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio. Nolanahi ere, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko ditu emandako diru laguntzak, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 17. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7.3. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, non eta argitalpenean bertan ez den epe hori luzatzen. Gehieneko epea amaituta ebazpena berariaz jakinarazi ez bada, interesatuak legitimatuta daude diru laguntza eskaera isiltasun administratiboagatik ezetsita dagoela ulertzeko.

7.4. Diru laguntza proposamenaren zenbatekoa eskaerakoa baino txikiagoa denean, erakunde onuradunari eskatu ahal izango zaio berriro formula dezala eskaera, eman dakioken diru laguntzara moldatzeko konpromisoak eta baldintzak.

8. oinarria. Entitate onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.

8.1. Entitate onuradunek diru laguntzak onartzeak berekin dakar honako arau hauek ezartzen dituzten betekizunen pean egotea: 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa; hura garatzeko araudia, 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartua, diru laguntzen



inguruan aplikagarri izan daitekeen gainerako araudia eta oinarri orokor eta berezi hauetatik ondorioztatzen direnak.

8.2. Diruz lagundutako proiektuaren inguruan argitaratzen diren materialetan eta egiten diren komunikazio eta hedapen jardueretan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea, Euskararen erabilera normalizatzeko plana Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jardura esparruan 2013-2017 aldirako onartzen duen 2014ko abenduaren 22ko Diputatuen kontseiluko erabakiak xedatutakoaren arabera (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 249 zk. 2014ko abenduaren 31koa).

8.3. Genero ikuspegia sartu beharko da diruz lagundutako proiektua diseinatu eta garatzerakoan.

8.4. Hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatuko da diruz lagundutako proiektuaren komunikazio eta argitalpen guztietan.

8.5. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuak diru laguntzaren xederako ematen duen finantzaketari beharrezko publizitatea emango zaio. Horretarako, haren irudi instituzionala sartuko da, finantza keta publikoari eta esku hartze publikoko programaren xedeari buruzko aipamenekin batera, karteletan, material inprimatuetan, baliabide elektronikoko edo ikus-tunetzkoetan eta abarretan, hedabideetan egiten diren aipamenekin batera.

8.6. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuak ezartzen dituen ebaluazio baldintza guztiak bete beharko dira; horien bitartez, jarduerak eta emaitzak eta inpaktuak neurtuko dira eraginkortasunetik eta eragimenetik.

8.7. Emandako diru laguntzak ondasun inbetariagarriak erosteko erabiltzen badira, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 30.4. artikuluan ezarritakoa bete behar da.

Horrenbestez, erakunde onuradunak diru laguntzaren xederako erabili behar du eskuratutako ondasun hori, gutxienez 5 urtetan erregistro publiko batean inskriba daitekeena bada, eta gutxienez 2 urtetan beste kasu guztietan.

8.8. Diru laguntza eman zenetik bost urteko epean, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo helbide soziala, fiskala edo produkzio zentroetako zati nabarmen bat beste toki batera eramanez gero, diru laguntza itzuli beharko da eta 14. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da.

9. oinarria. Diruz lagundutako jardueren azpikontratazioa.

Entitate onuradunek beste batzuekin hitzartu dezakete diru laguntzaren xedeko jardueraren zati bat beraiek egitea, baldin eta 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 28. Artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen badira. Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua areagotuz jardura horri ezar gehitzen ez diotenak.

10. oinarria. Diru laguntzen bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

10.1. II. eta III. eranskinetan aurreikusitako diru laguntzak ez dira bateragarri izango helburu bererako emandako beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, horiek Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik etorrira ere.

10.2. IV. eta V. eranskinetan aurreikusitako diru laguntzak ez dira bateragarri izango Gipuzkoako Foru Aldundiak helburu bererako ematen dituen beste laguntza batzuekin. Aldiz, bateragarri izango dira Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, betiere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzin ez bada eta eragotzi gabe gai horren inguruan beste laguntza batzuen araudiak esaten duena.

10.3. Oinarri hauen arabera diruz lagundutako proiektua garatzeko diru laguntza bat eskatzen edo lortzen duen entitate onuradunak horren berri eman beharko dio Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuari.

11. oinarria. Diru laguntzak ordaintzea.

11.1. Diru laguntza proiektua amaitutakoan ordainduko da, 12. oinarrian aurreikusitako justifikazioa aurkeztu eta gero.

11.2. Salbuespen gisa, laguntza programaren helburuaren -plegua sortzea-, entitate onuradunen ezaugarria – ekintzailtzari laguntza ekosistemaren eragilea– eta, gainera, kasu batzuetan irabazi asmo gabeko entitateak direla kontuan izanda, ordainketa aurreratuak egin daitezke, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantza keta moduan, pertsona, enpresa edo erakunde onuradunak eskaera egin eta finantzazio



beharra duela zuritu ondoren. Laguntzaren aurrerakinak proiektuari ekiten zaionean eta hasiera hori behar bezala egiaztatuta dagoenean ordaindu ahal izango dira, betiere, baliabide nahikoa badago eta diru laguntza osoaren % 60 gainditzen ez bada. Halaber, diru laguntzaren izaerak hala justifikatzen duenean, ordainketa berri bat egin ahal izango da, lehen egindako ordainketarekin gehituta diru laguntza osoaren % 85ekoa baino txikiagoa izan behar duena, betiere lehen aurreratutako diru kopurua behar bezala eta dokumentuz zuritu bada, beharrezko finantzaketa egiaztatzen bada, baliabide nahikoa badago eta diruz lagundutako jardueren gauzatze erritmoarekin eta aurkeztutako zuriaketekin bat baldin badator.

Gainontzeko kopurua proiektuaren amaieran eta 12. Oinarrian aurreikusten den dokumentazioa aurkeztean ordainduko da.

11.3. Salbuespen gisa, emandako diru laguntza oso-osorik ordaindu ahal izango da proiektua edo jarduera amaitu baino lehen, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantza keta moduan, horretarako banku edo finantza erakundearen abala aurkeztu beharko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren iritziz nahikoa dena. Banku edo finantza erakundearen abal hori aurreratutako diru laguntzari eta aurrerakina ematen den une beretik eta proiektua gauzatu arte sortzen diren berandutza interesei erantzuteko modukoa izango da. Berandutza interestzat joko da uneko diruaren legezko interesa.

Abala indargabetu egingo da diru laguntzaren xedeko proiektua amaitu dela deskargu tekniko, ekonomiko eta finantzarioz egiaztatzen denean, hain justu, 12. oinarrian aurreikusten den dokumentazioa aurkeztuta.

11.4. 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak,

Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 32. artikuluan ezarritakoari jarraituz, ez dira ordainketak egingo entitate onuraduna edota enpresa laguntzaileak zerga betebeharreran eta gizarte segurantzakoetan egunean egon arte. Hori dela eta, ordainketa jaso aurretik aurkeztu beharreko dokumentazioan, aipatutakoa egiaztatzen duten dokumentuak erantsi beharko dira. Dokumentazio hori Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuari espresuki emandako baimenarekin ordezkari daiteke, hartara dagokion administrazioak datu horiek zuzenean eman diezazkion.

12. oinarria. Diru laguntza zuritzea.

12.1. Kasu guztietan, entitate onuradunak frogatu beharko du diruz lagundutako jarduera gauzatu izana, baita jarduera horrek sortutako kostuak ere.

12.2. Diru laguntzaren xedeko proiektua edo jarduera hilabeteko epearen barruan zuritu behar da, eta epe hori diruz lagundutako proiektu edo jarduera hori gauzatzeko epea, urteko deialdian ezarritako dena, amaitzen denetik kontatuko da.

12.3. Aurreko paragrafoan zehaztutako epearen barruan, enpresa onuradunak kontu zurigarri bat aurkeztu beharko du ondorengo agiri hauek jasoz:

— Diru laguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen jarduera memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuaren web orrian eskuragarri dagoen ereduaren arabera. Proiektua gauzatu bitartean sortutako agiri eta txosten guztiak erantsi beharko dira, baita proiektuari buruzko dokumentazio grafikoa, argazki bidezkoa edo ikus-entzunezkoa.

— Memoria ekonomikoa, jardueren kostua frogatuko duena. Honako edukiak izango ditu:

a) Zerrenda sailkatu batean jasota, jardueraren gastuak, bakoitzaren hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data adierazita. Diru laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, horrekiko desbiderapenak adieraziko dira.

b) Fakturak, edo merkataritzako trafiko juridikoan haien pareko froga-balioa edo eraginkortasun administratiboa duten agiriak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan adierazitakoak, eta, behar izanez gero, ordainketaren egiaztapenak.

c) Beharko balitz, aurreko a) atalean aipatu den zerrendara gehitutako gastu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adieraziko dira.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jaso diren beste diru sarreraren edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

e) Entitate onuradunak, ekipo-ondasunen horniduran edo aholkularitza edo laguntza teknikoaren arloko enpresen zerbitzu-prestazioan, diruz laguntzeko moduko 15.000 euroko edo hortik gorako kostuak egin baditu, eskatutako



hiru eskaintzen artean egindako aukeraketa egiaztatzen duen dokumentazioa, non eta laguntza horren ezaugarri bereziak direla-eta behar adinako enpresa edo profesionalik ez dagoen zerbitzu horiek emateko, edo kostua diru laguntza eskatu aurretik egin den. Aurkeztu diren eskaintzak, justifikazio fasean edo, bestela, diru laguntza eskaeran aurkeztu behar direnak, efizientzia eta ekonomia irizpideen arabera hautatuko dira. Hautatutakoak proposamen ekonomikorik onenak ez badira, berariaz zuritu beharko dira memoria batean.

— Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan edota entitate laguntzailekoetan egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak. Dokumentazio horren ordez, Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuari baimena eman dakioke berariaz, berak zuzenean jaso ditzan datu horiek, horrelakoak emateko eskumena duten administrazioetatik.

12.4. II. eranskinaren 2. oinarrian aurreikusitako jardueren kasuan, diru laguntzaren zuritzea eranskinaren 4. Oinarrian jasotako moduluen bidez kreditatuko da.

Eta, aurkeztu behar den dokumentazioa, honako hau izango da:

— Jardueraren memoria, diru laguntzaren xedeko jardueraren garapena zurituko duena. Horretan sartuko dira, halaber, egindako jardueren xehetasunak, lortutako emaitzak eta egindako bideragarritasun plana.

— Memoria ekonomiko zurigarria, gutxienez honako xehetasunak emango dituena:

a) Modulutzat hartu diren unitate fisikoen kopuruari buruzko egiaztagiria edo, holakorik ezean, pertsona onuradunaren aitordua.

b) Diru laguntzaren zenbatekoa, jarduera memorian eta II. eranskinaren 4. oinarrian aurreikusten diren moduluetan kuantifikatu diren jarduerak oinarri hartuta kalkulatuak.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jaso diren beste diru sarreren edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

— Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan edota entitate laguntzailekoetan egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak. Dokumentazio horren ordez, Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuari baimena eman dakioke berariaz, berak zuzenean jaso ditzan datu horiek, horrelakoak emateko eskumena duten administrazioetatik.

12.5. Kostuak egiaztatzeko jatorrizko agirien kopia elektronikoa, informatikoa edo telematikoa aurkeztuko da, baldin eta agiri horien egiazkotasuna, osotasuna eta zaintza bermatzen badira.

12.6. Diru laguntza justifikatzeko ezarritako epea amaitu eta ez badira oinarri hauetako 3. eta 4. ataletan aipatutako agiriak aurkeztu, organo eskudunak 15 eguneko epea emango dio entitate onuradunari agiri horiek aurkezteko. Bigarren epe horren barruan justifikazioa aurkezten ez bada, hamalagarren oinarrian aurreikusitako ondorioak eragingo ditu.

12.7. Entitate onuradunak, laguntza ematea bultzatu zuen jarduera burutu izanaren eta jasotako fondoak aplikatu izanaren egiaztagiria 4 urtez gorde beharko ditu nahitaez. Epe hori kontatzen hasiko da entitate onuradunak aipatu ziurtagiriak aurkezteko ezarrita dagoen denbora amaitzen denetik aurrera.

12.8. Oinarri honetako 3. eta 4. puntuetan adierazitako agiriak aurkeztutakoan, Jakintza eta Enpresa Jarduera Sustatzeko Zerbitzuak dokumentazioa egiaztatuko du.

Egiaztapen horretatik ondorioztatzen bada diruz lagundu daitekeen kostua emandako diru laguntza baino txikiagoa dela, doitu egingo da diru laguntza. Diru laguntza justifikatzeko ezarritako baldintzak edo diru laguntzaren xede ziren helburuak, osorik nahiz zati batean, ez badira bete, horren berri emango zaio eskatzaileari egiaztapenaren emaitzekin batera, eta aldi berean hasiera emango zaio diru laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emateko prozedurari, edota diru laguntza osorik nahiz zati batean itzultzeko prozedurari (14. oinarrian aurreikusten da).

13. oinarria. Ebazpena aldatzea.

13.1. Entitate onuradunak organo emaileari eskatu ahal izango diote, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu aurretik, aldatu dezala diru laguntzak emateko ebazpena, baldin eta finkatutako epeak luzatzea, emandako diru laguntza murriztea, diruz lagundutako aurrekontu atalak aldatzea edo jardueran bildutako ekintzak aldatzea badakar. Aldaketa horiek ezusteko kausen ondorio direnean edo jardueraren helburua lortzeko beharrezkoak direnean baimenduko dira, betiere diru laguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

13.2. Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuak ofizios alda dezake diru laguntza emateko ebazpena, betiere entitate interesatuari entzunaldia eskainita eta funtsak ezarri aurretik, baldin



eta diru laguntza emateko kontuan hartutako baldintzen aldaketak galarazten edo zailtzen badu erdietsi nahi den interes publikoa lortzea eta onuradunari ez bazaio kalte ekonomikorik eragiten.

13.3. Entitate onuradunak egiaztapen-agirian jakinarazten badu aldatu egin direla diru laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak eta, aldaketa horiek direla eta, lehen adierazi eran ebazpena aldatzea zilegi zatekeela, baina aldaketa onartu aurreko baimen administratiboaren tramitea ez zela egin bere garaian, Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuak onartu egin ahal izango du aurkeztu dioten egiaztapen-agiria, baldin eta erabaki horrek hirugarren batzuen eskubideak urratzen ez baditu, eta alde batera utzi gabe entitate onuradunari jar dakiokkeen isuna, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzak arautzen dituenak, dioenari jarraikiz.

14. oinarria. Ez-betetzeak eta itzulketak.

14.1. Entitate onuradunak ez badu betetzen oinarri arautzaile hauetan, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan eta gainontzeko araudi aplikagarrian ezarrita dauden baldintzetakoren bat, laguntza jasotzeko eskubidea galduko du erabat edo neurri batean, eta jasotakoa itzuli beharko du osorik edo neurri batean, aipatutako foru arauaren 35. artikuluan xedatutakoaren arabera legezkiokkeen berandutza interesekin batera, eta, erantzukizunak eskatuko zaizkio, aipatutako foru arauaren 49. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera.

14.2. Bete gabe utzi dena mailakatzeko, proportzionaltasunaren irizpideak erabiliko dira, eta irizpide horiek organo instruktoarek balioetsiko ditu, egindako lanen arabera onuradunak proiektua zer neurritan burutu duen eta zenbateko diru laguntza jaso duen kontuan hartuta.

14.3. Proiektuaren bideragarritasunagatik edo izaeragatik, edo behar bezala zuritutako bestelako arrazoiengatik ezingo balitz lana bukatu edo aurrera jarraitzea komeniko ez balitz, diru laguntza bukatutzat eman ahal izango da, bi aldean artean adostuta.

14.4. Borondatezko itzulketatzat jotzen da pertsona ala entitate onuradunak diru laguntza ematen duen organoak eskatu gabe egiten duena.

Itzultzeko prozedura hasteko, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako foru diputatuari, eta bertan, datu hauek sartu behar ditu, betiere:

- Entitatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Entitatearen ordezkartzan jarduten duenaren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Borondatezko itzul keta egiteko arrazoiaren azalpena.
- Tokia eta data.
- Sinadura.

Idatzi horrekin batera, agiri bat aurkeztu behar du egiaztatzeko itzulketa egin dela deialdiak zehaztutako finantzaerakundearen kontu zenbakian.

Borondatezko itzul keta gertatzen denean, dagozkion berandutza interesak kalkulatuko ditu diru laguntza ematen duen organoak.

15. oinarria. Europar Batasuna.

Oinarriotan araututako diru laguntzek ondoko izaera izango dute:

— II., IV eta V. eranskinetan aurrekositako diru laguntzak, «de minimis» laguntzatat joko dira eta ez zaie aplikatu behar sektore, enpresa edota lurralde izaera duten eragile eta elkarteei, ezta ekintzaitza babesten duten erakundeei ere. Beraz ondorengo erregelamenduan xedatutakoa aplikatuko da, hotz, 2013ko abenduaren 18ko Europar Batzordearen 1407/2013 EB Erregelamendua, minimis laguntzei Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Itunaren 107 eta 108. Artikuluak ezartzeari buruzkoa (2013ko abenduaren 24ko Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala). Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, emandako MINIMIS laguntzek guztira ez dute 200.000 euro baino gehiago izan behar hiru zergalditan.

— III. eranskinean aurrekositako laguntzak berez ez dira estatuko laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunak 107. artikuluko 1. puntuan xedatutakoaren arabera.

16. oinarria. Finantzaketa komunitarioa.

16.1. Diru laguntzaren xede diren jarduerak Europar Batasunak aurrekositako helburu eta ekintzekin bat datozen heinean, finantzaketa komunitarioa lortzeko izapidetuko dira.

16.2. II. eta III. eranskinei dagozkien oinarriak eta deialdia bat datoz Europako Gizarte Funtzaren (EGIF) Euskal



Autonomia Erkidegorako 2014-2020 programa operatiboarein, zehazki, «inbertsioaren lehentasuna» 8. helburu tematikoarekin eta 8.3.1 helburu bereziarekin.

16.3. IV. eranskinari dagozkion oinarriak eta deialdia bat datoz Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren (EGEF) Euskal Autonomia Erkidegorako 2014-2020 programa operatiboarekin.

16.4. Europar Batasunarekin batera finantzatzeko diren diru laguntzak komunitateko araudiak eta garapen eta transposizio arauak arautuko dituzte, kasuan kasu.

16.5. Europar Batasunaren kofinantza keta lortuz gero, diru laguntzaren xedeari buruzko aipamen publiko orotan jasota geratuko da: bai EGEFen (Eskualde Garapenerako Europar Funtsa) % 50eko finantzazioa, lelo hau jarrita: «Europa egiteko modu bat», bai EGFen (Europako Gizarte Funtsa) % 50eko finantzazioa, lelo hau jarrita: «EGFek zure etorkizunean inbertitzen du».

16.6. Diruz lagundutako entitateak bermatu egin behar du 2014-2020 EGEF edo EFG programa operatiboari dagozkien kostuen eta kontu ikuskaritzen egiaztagiri guztiak Batzordearen eta Kontuen Auzitegiaren eskura egongo direla hiru urteko epean, programa ixten denetik hasita, edo, egin diren urtetik hasita.

17. oinarria. Araubide juridikoa.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru laguntzak arautzeko, bertan xedatutakoaz gain, kontuan hartuko dira 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoan; 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako araudian eta diru laguntzen alorreko gainerako araudi aplikagarrietan ezarritakoa.

II. ERANSKINA

Enpresak sortzeko prozesuan enpresa proiektuei laguntza emateko diru laguntzen oinarri bereziak.

1. oinarria. Xedea.

Enpresak eta enpleguak sortzeko prozesuak laguntzea eta indartzea.

2. oinarria. Diru laguntzaren xede diren jarduerak.

2.1. Diru laguntza jaso ahal izango duten jarduerak izango dira ideia umotzeko eta «bidegarritasun plana» egiteko prozesuan pertsona edo talde sustatzaileari laguntzeko ekintzak (hasi enpresa ideia zehaztetik eta ideia garatu arte).

Garatuko den bideragarritasun planak honako hauek eduki beharko ditu: jardueraren eta proiektuko talde sustatzailearen eta pertsonen deskribapen xehatua, merkatu azterketa, marketin plana, inbertsioak eta azterketa ekonomiko-finantzarioak, izaera juridikoa eta kapitalaren osaera etab; eta ideien bideragarritasunari buruzko adierazpena.

2.2. Aholkularitza zerbitzuak entitate homologatuek emango dituzte, eta homologazio hori ekintzaileei aholkularitza eta laguntza teknikoak emateko zerbitzuak homologatzeko oinarriak arautzen dituen 437/2004 Foru Arauaren, edo hori ordezkatzeko duen araudiaren arabera lortuko da.

2.3. Proiektuen baldintzak:

2.3.1. Gipuzkoan ezarriko den eta sustatzailearen jarduera ekonomiko nagusia bilakatuko den enpresa proiektu bat aztertu eta garatu nahi duten pertsonen sustatutako proiektua izatea.

2.3.2. Ezingo da proiektuaren sustatzaile izan azken bi ekitalditan antzeko ezaugarriak dituen jarduera bat bere kontura garatu duen inor.

2.3.3. Bideragarritasun plana jarduera ekonomikoa hasi baino lehen egin beharko da.

2.3.4. Bideragarritasun plana 2004ko maiatzaren 26ko 437/2004 Foru Aginduan aurreikusitako metodologiaren eta kalitate estandarren arabera egin beharko da.

3. oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.

Entitate onuradunak izango dira ekintzaileei aholkularitza eta laguntza teknikoak emateko zerbitzuak homologatzeko oinarriak arautzen dituen 437/2004 Foru Arauaren edo hori ordezkatzeko duen araudiaren bidez homologazioa lortu duten entitateak.



4. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

4.1. Diruz lagundu daitezkeen aholkularitza zerbitzuak Gipuzkoako diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko Foru Arauak, 29. artikuluan, eta arau hori garatzen duen erregelamenduak (2008ko apirilaren 29ko Foru Dekretua) ezarritako modulu sistemari jarraituz beteko dira.

4.2. Enpresak sortzeko aholkularitza zerbitzuak emateko modulu sistemak 25 ordutan ezartzen du proiektu bakoitzeko gehieneko dedikazioa.

4.3. Enpresak sortzeko kontsulta eta aholkularitza zerbitzuen modulu sistemak, ondoko unitateko kostu estandarrak izango ditu:

— Besteen konturako langileak, Gizarte Segurantzako kotizazioan hobaririk gabekoak: 33,76 €/orduko.

— Besteen konturako langileak, Gizarte Segurantzako kotizazioan hobaridunak: 25,79 €/orduko.

— Langile autonomoak: 30,30 €/orduko.

4.4. Modulu horiek eguneratu ahal izango dira ezartzerakoan kontuan hartu ziren baldintza ekonomiko, finantziero edo teknikoak aldatzen diren heinean.

5. oinarria. Diru laguntzen zenbatekoak.

Diru laguntzen zenbatekoa kostu hautagarrien % 100 izatera irits daiteke.

III. ERANSKINA

Enpresak sortzeko prozesuan emakumeek sustatutako enpresa proiektuei laguntza emateko diru laguntzen oinarri bereziak.

1. oinarria. Xedea.

Emakumeek sustatuta enpresen eta enpleguaren sorrera eragingo duten enpresa proiektuak bultzatzea.

2. oinarria. Diru laguntzaren xede diren jarduerak.

Emakumeek enpresa berriak sortzeko prozesuan laguntzeko sistema integral pertsonalizatuak antolatzea, gutxienez honako hauek jasoz:

— Sarbide eta komunikazio gune bakarra eta doakoa Gipuzkoarako.

— Genero ikuspegia jasoko duen laguntza integrala eta pertsonalizatua.

— Enpresak proiektu bakoitzarekin edo enpresa sorrerarekin zerikusia duten gaitasun bereziak eta/edo zeharkakoak eskuratzeko prozesuak.

— Bideragarritasun planak egitea.

— Enpresa berriaren jarraipena eta tutoretza lehen urtean.

— Enpresa proiektuaren ezaugarriei eta beharrei eta emakume ekintzaileari egokitutako finantza zioa.

— Bizitza pertsonala eta profesionala bateragarri egiteko zerbitzuak.

— IKTetan oinarritutako gizarte zabalkundeko eta balioespeneko sistemak.

3. oinarria. Onuradunek bete behar dituzten eskakizunak.

3.1. Enpresen interesak ordezkatu, sustatu eta defendatzen dituzten Gipuzkoako enpresa elkarteak eta entitateak onuraduntzat joko dira.



3.2. Dena den, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera izango dute halaber aurreko oinarrian aipatu diren entitateen elkarte publiko edo pribatuek, zeintzuk izaera juridikorik izan gabe ere diruz laguntzeko modukoak izan daitezkeen proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen. Kasu honetan, dagokion eskaeran elkarteak osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta hoietako bakoitzari aplikatu beharreko diru laguntzaren zenbatekoa, horiek ere onuraduntzat joko baitira, eta denei 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

Nolanahi ere, elkartek entitate bat izendatu beharko du ordezkari gisa, elkarteari dagozkion eginbeharrak betetzeko behar hainbateko ahalmena duena. Entitate ordezkari hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenaz eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bera gain hartuko ditu, halaber, prozesua ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarrizketa eta harremanen zereginak.

4. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

4.1. Entitate eskatzaileak aurkezten duen jardueraren aurrekontu xehatu eta zehatzean jasota dauden eta zalantzarik gabe horren garapenarekin lotuta dauden gastuak.

4.2. Langileen kostuaren kasuan, proiektuari eskainitako ordu kopuruaren ziurtagiria aurkeztuko da.

4.3. Kanpoko langileen kostua hautagarria izango da, gehienez ere 69,29 euro/orduko balioarekin.

4.4. Zeharkako kostuak, diruz lagundutako proiektuarekin lotura zuzena duten barneko langileen zuzeneko kostuen % 15 bitartekoa izan daitezkeen ehuneko finko bat aplikatuta.

4.5. Bideragarritasun planei zein laguntza eta/edo tutorizazio planei dagokienez, II. eranskinaren 4 oinarrian aurreikusitako tarifak aplikatuko dira.

4.6. Bidaietan eta mantenuan egindako gastuei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren 1993ko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan, zerbitzuen ondoriozko kalteordanei buruzkoan, aurreikusitako baremoak aplikatuko dira.

5. oinarria. Diru laguntzen zenbatekoak.

Diru laguntzen zenbatekoa kostu hautagarrien % 100 izatera irits daiteke.

6. oinarria. Proiektuen artean hautatzeko irizpideak.

6.1. Diru laguntzak, deialdi eta hautapen-prozedura bakarreko elkarren lehiaren bidez emango dira.

6.2. 2. oinarrian jasotako diru laguntza eskaerak hautatzeko ondorengo balorazio irizpideak izango dira kontuan:

— Proposamenaren kalitatea (entitatearen esperientzia, erabakitako estrategiaren argitasuna eta izaera berritzailea; jarduera positiboen integrazioa, ekonomia zirkularra eta sormen industria; eta proposatutako helburuen arteko neurri zuzena eta koherentzia, eta garatuko diren tresnen metodologia): 30 puntu gehienez.

— Horien hartzaile diren emakumeen kopurua: 30 puntu arte.

— Ekintza ikasitako ikasgaietan eta emaitzetan izan dezaketen eragina: 25 puntu arte.

— Aukera berdintasuna emakume eta gizonen artean: 5 puntu arte.

— Entitate eskatzaileak euskararen aldeko ekintza positiboak burutzea eta Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuarekin euskarazko talde bat sortzea: 5 puntu arte.

— Europako politiketan eta interes komunitario orokorretan eta berezietan txertatzea: 5 puntu arte.

6.3. Aurreko ataleko irizpideen arabera 50 puntura iristen ez diren proiektuek



IV. ERANSKINA

Oinarri teknologikoko enpresak edo enpresa berritzaileak sortzeko prozesuan laguntza emateko diru laguntzen oinarri bereziak.

1. oinarria. Xedea.

Gipuzkoako enpresen sarea dibertsifikatzen lagunduko duten enpresa proiektu berriei laguntzea, eraldatzeko duten gaitasunaren eta balio erantsiaren arabera, eta aintzat hartuz, bereziki, enplegu berdea eta ekonomia zirkularra bultzatzen laguntzen duten horiek, ekimen pertsonalaren nahiz barne ekintzaitza korporatiboaren ondorio izan.

2. oinarria. Diru laguntzaren xede diren jarduerak.

2.1. Oinarri teknologikoko enpresa edo enpresa berritzailearen ideia sortu, enpresa plana prestatu eta abian jartzeko prozesuan pertsonari edo ekipo bultzatzaileari laguntza ematea.

2.2. BIC Gipuzkoak babestuko dituen enpresa ekimenak.

3. oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.

Onuradunak izango dira: Gipuzkoan errolatuta dauden pertsona fisikoak eta Gipuzkoan helbide soziala eta fiskala edo egoitza duten pertsona juridikoak, eta oinarri teknologikoko enpresa proiektu bat edo enpresa berritzaile bat sortzeko ideia dutenak Gipuzkoan martxan jartzeko.

4. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

Diruz lagunduko diren kostuak ondorengoak izango dira:

- Pertsona edo talde sustatzailearen dedikazioa (600 euro/hilabete gehienez).
- Enpresa esparruan edo proiektuaren araberrako berariazko esparruan gaitasunak eskuratzea.
- Kanpo aholkularitza eta laguntza teknikoaren gastuak.
- Prospekzio azterlanak eta dokumentazioa.
- Azoketara joatea, bidaiatzea eta abar.
- Maketa eta prototipoak egitea.

5. oinarria. Diru laguntzen zenbatekoak.

Diru laguntza, kostu hautagarrien % 100 artekoa izango da, enpresa proiektu bakoitzeko 40.000 €-ko gehienezko mugarekin.

V. ERANSKINA

Ekintzaileen eta ekintzaitzaren inguruko trebakuntza, ebaluazioa, balorizazioa eta zabalkunde soziala helburu dituzten jarduerak diruz laguntzeko oinarri bereziak.

1. oinarria. Xedea.

Honako arlo hauekin lotutako jarduerak egiten laguntzea: Oinarri Teknologikoko Enpresa Berrien arloko trebakuntza; ekintzaitza bultzatzeko ekosistema garatzea; ekintzaileen eta ekintzaitzaren ebaluazioa, balorizazioa eta zabaldunke soziala egitea, ekimen pertsonalaren nahiz barne ekintzaitza korporatiboaren ondorio izan.

2. oinarria. Diru laguntzaren xede diren jarduerak.

2.1. Hezkuntza komunitatean enpresa espirtua sustatuko duten esperientziak eta Oinarri Teknologikoko Enpresa Berrien arloko trebakuntza.



2.2. Ekintzaitza bultzatzeko ekosistemaren barruan, eragileak eta haien arteko harremanak indartzera bideratutako ekimenak.

2.3. Ekintzaileen eta ekintzaitzaren ebaluazioa, balorizazioa eta zabalkunde soziala, pertsonaren ekimenez edo korporazioaren barne ekintzaitzaren bidez. Horretarako, jarduera hauek egingo dira: pertsonaren eta enpresaren jardunbide egokien identifikazioa eta sozializazioa; ekintzaitzasun prozesuen eraginen neurtzea; ekosistemaren erlazioak ikusgarri egitea argitalpenen bidez (idatziz eta IKTen erabilera intentsiboaren bidez); jardunaldiak eta mintegiak antolatzea eta horietan parte hartzea; garatutako politiken eraginak neurtzeko, herritarren, enpresen, entitate onuradunen eta ekintzaitza bultzatzeko ekosistemako eragileen integrazioa.

3. oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.

Onuradun izango dira Gipuzkoako berrikuntza enpresen zentroak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren funts publikoekin finantza tutako hezkuntza arautuko zentroak, eta ekintzaitzaren ebaluazioaren eta/edo zabalkunde eta balorizazio sozialaren arloan esperientzia kontrastatua duten entitate eta enpresak.

4. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

4.1. Entitate eskatzaileak aurkezten duen jardueraren aurrekontu xehatu eta zehatzean jasota dauden eta zalantzarik gabe horren garapenarekin lotuta dauden gastuak.

4.2. Ez dira diruz lagunduko bidaia eta mantenu gastuak.

4.3. Kostu hautagarriak ez dira izango merkatuaren balioa baino handiagoak eta arrazoizkoak izan beharko dute. Gainera, mugatu egin ahal izango dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuak hala erabakiko balu.

5. oinarria. Diru laguntzen zenbatekoak.

5.1. Diru laguntza, kostu hautagarrien % 100 artekoa izango da.

5.2. Entitate eskatzaileak aurkeztutako aurrekontua edo ondorengo aldaketak hartuko dira diru laguntzaren zenbatekoa zehazteko erreferentziatzat.

6. oinarria. Proiektuen artean hautatzeko irizpideak.

6.1. Eskaeren artean aukeratzeko, balorazio irizpide hauek erabiliko dira:

a) Proposamenaren kalitatea (entitatearen esperientzia, erabakitako estrategiaren argitasuna eta izaera berritzailea; jarduera positiboaren integrazioa, ekonomia zirkularra eta sormen industria; eta proposatutako helburuen arteko neurri zuzena eta koherentzia, eta garatuko diren tresnen metodologia): 30 puntu gehienez.

b) Ekintzek ikasitako ikasgaietan eta emaitzetan izan dezaketen eragina: 30 puntu arte.

c) Onuradun izan daitezkeen pertsona, pertsona kolektibo eta/edo entitate kopurua: 20 puntu arte.

d) Aurkeztutako jarduera garatzeko bideragarritasun finantzarioa: 10 puntu arte.

e) Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna: 5 puntu arte.

f) Entitate eskatzailean euskararen aldeko ekintza positiboak edukitzea, eta Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuarekin harremana euskaraz izango duen talde batsortzea: 5 puntu arte.

6.2. Irizpide horien arabera 50 puntura iristen ez diren proiektuek ez dute eskubiderik izango diru laguntza jasotzeko.